

KANALAK

Gure enpresa eta produktuek merkatuan arrakasta izan dezaten, bezeroarekiko atentzioa beharrezkoa da. Horregatik, gure bezeroarengana iristeko denda fisiko asoziatu batzuk izango ditugu, non bezeroarekin harreman gertuagoa lortuko dugun. Gure produktua, neurri ezberdinak dituzten pertsonentzat zuzendua dago eta neurri hauek hartzeko langileak behar ditugu, ondorioz ETT enpresa batekin kontaktatuko dugu. ETTaren langileen laguntzaz baliatuz, erkidego bakoitzeko bezeroei neurriak hartu ahalko genizkie eta ez ginateke ohiz kanpoko gastuetaz arduratu beharko.

Bestalde, produktua bezeroarengana irits dadin, publizitatea egitea nahitaezkoa izango zaigu, eskaintza kanalak. YouTubeko kanal baten bidez egingo dugu publizitatea "TXIRRINDULARIAK WEB", izan ere, Euskal Herriko txirrinduzale guztiek ikusten dute.



Beste txirrindulari batzuk ere babestuko genituzke, Alex Roca (paralisis zerebral duen gazte bat) babestuko genuke, gure enpresaren irudi soziala hobetzeko eta txirrinduzale askoren artean oso ezaguna delako espaini mailan.

Espaini maila osoan oso famatua den beste irudi publiko bat behar dugu, horretarako Ibon Zugasti babestuko genuke. Izan ere, Espaini guztiko txirrindulariek ezagutzen dute eta bere YouTubeko kanaleko bideoen argitalepen epeak oso laburrak dira.

Bizikletak entregatzeko banaketa kanal bat beharko dugu, horretarako "Correos"-era bidaliko ditugu gure txirriak, Correos zerbitzua ekonomikoa delako eta lanetik kanpo ere erabiltzen dugulako. Beraiekin kontaktatu nahi dugu gero beraiek gure produktua bezeroarengana eramateko, horrela, azkar eta ondo iritsiko zaizkie bizikletak.

LUB-en materialen inportaziorako UPS bidez egindako bidalketaz baliatuko gara, izan ere europear mailako enpresa edo start up ia guztiek banaketa kanal hau erabiltzen dute eta kanal berak izateak harremanetarako laguntzen du. Gure osagai gehienak Europar Batasunaren barru dauden osagai enpreetan erosiko ditugu.